

ZARAUZKO TRIATLOI ELKARTEA

ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

Kontaktua: info@zarauzkotriatloia.com



ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

2023ko urriaren 21ean, goizeko 10:00etan ospatuko da Zarauzko Triatloi Elkarteak antolatzen duen Zarauzko Triatloi Txikia, Zarauzko Kiroldegian.

Gaztetxoak triatloi munduan barneratzeko Zarauzko Triatloi Elkarteak antolatutako froga bat da eta Eskola Kirola egitasmoaren barnean antolatzen da. Izen ematea ikastetxeko koordinatzailearen bitartez egingo da. Parte hartzaileek triatloi bateko segmentu guztiak jorratuko dituzte; igeri, bizikleta eta korrika egin beharko dute. Parte hartzaileak 2 mailetan banatuko dira adinaren arabera eta amaieran Zarauzko Triatloi Elkarteako taldekide batzuk ere (30 inguru) lasterketa txiki bat antolatuko dute. Maila bakoitzaren ezaugarriak honakoak dira:

BENJAMINAK (LH3 eta LH4):

Igeriketa

Zarauzko Kiroldegiko igerilekuan 50 metro burutu beharko dituzte. Umeek ekarri beharreko materiala:

- Igeriketako erropa
- Igeriketako betaurrekoak

Bizikleta


600 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote. Bizikletak boxeetatik atera eta ondorengo ibilbidea egingo dute gezien norabidean (kolore morea): Itaisoro kalea – Zuberoa kalea – Aitza kalea – Araba kalea. Umeek ekarri beharreko materiala:

- Bizikleta eta kaskoa
- Bizikletarako erropa

Korrika

300 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote, Araba kaleko espaloian zehar (kolore berdea).

ZIRKUITUA



ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

ALEBINAK (LH5 eta LH6):

Igeriketa

Zarauzko Kiroldegiko igerilekuan 100 metro burutu beharko dituzte. Umeek ekarri beharreko materiala:

- Igeriketako erropa
- Igeriketako betaurrekoak

Bizikleta

1.300 metroko zirkuitua burutu beharko dute, bi itzuli emanaz Kiroldegiko eremuari. Bizikletak boxeatatik atera eta ondorengo ibilbidea egingo dute gezienez norabidean (kolore morea): Itaisoro kalea – Zuberoa kalea – Aitza kalea – Araba kalea – Itaisoro kalea. Umeek ekarri beharreko materiala:

- Bizikleta eta kaskoa
- Bizikletarako erropa

Korrika

400 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote, Araba kaleko espaloian zehar (kolore berdea).

ZIRKUITUA



ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

ZARAUZKO TRIATLOI ELKARTEKO TALDEKIDEAK (30 inguru = 3 partaideko 10 talde):

Igeriketa

Zarauzko Kiroldegiko igerilekuan 50 metro burutu beharko dituzte. Partaideek ekarri beharreko materiala:

- Igeriketako erropa
- Igeriketako betaurrekoak

Bizikleta

600 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote. Bizikletak boxeetatik atera eta ondorengo ibilbidea egingo dute geziaren norabidean (kolore morea): Itaisoro kalea – Zuberoa kalea – Aitza kalea – Araba kalea. Partaideek ekarri beharreko materiala:

- Bizikleta eta kaskoa
- Bizikletarako erropa

Korrika

300 metroko zirkuituari itzuli bat eman beharko diote, Araba kaleko espaloian zehar (kolore berdea).

Antolaketa

Hiru partaideko 10 talde osatuko dira. Taldekide bakoitzak 3 segmentuak burutu beharko ditu eta amaitzean bere taldekideari erreleboa emango dio. Modu honetan, hiru errelebo-lasterketa egingo dira. Lasterketaren aurreikuspena 15 minutu ingurukoa da.

ZIRKUITUA



ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

ORDUTEGIA

Alebinak

- 10:00etan boxeen sarrera
- 10:30ean lasterketen hasiera

Benjaminak

- 11:30ean boxeen sarrera
- 12:00etan lasterketen hasiera

Zarauzko Triatloi Elkarteko taldekideak

- 13:00etan boxeen sarrera
- 13:05ean lasterketen hasiera

Adierazitako ordutegia gutxi gora beherakoa da. Irteerak adin tarte berdinekoen arteko taldeetan egingo dira. Talde batek bukatu ahala, hurrengoa abiatuko da. Honegatik, ordutegiari jaramonik ez egitea gomendatzen da eta 10:00etarako Kiroldegian egotea gomendatzen da.

ZARAUZKO TRIATLOI TXIKIA

BEHARRAK

Zarauzko Triatloi Elkarteak, Eskola Kirola egitasmoaren barnean antolatutako ekitaldia aurrera eramanean ahal izateko, elkarteak hurrengo beharrak ditu:

- Kotxeen zirkulazio antolaketarako udaltzainak
- Udaltzainen kono eta hesiak
- Megafonia konektatu ahal izateko, argi indarreko toma bat.

ZIRKULAZIO ETA APARKALEKU BEHARRAK

Boxeak Kiroldegi pareko aparkalekuan kokatuko dira, Itaisoro kale osoan zehar. Larunbat goizean kalea hutsik egotea komeni da. Baita ere, kale berdineko moto aparkalekua eta bizikleteroa ere hutsik egotea.

Bizikletako zirkuituaren norantzan dauden aparkalekutan ibilgailuak frogaren berri jartzea komeniko litzateke.

Araba kalean, zirkulazioaren norantzan, zirkulazioa moztu beharko da. Aukera bat izan daiteke, Araba kalea (Aitza kaletik Itaisoro kalera) moztuta egotea frogak irauten duen bitartean eta zirkulazioa Gurmendi kaletik Zuberoa kale aldera desbideratzea.

